Haurtzaro Ikastolako Aldizkaria

# TXINPART

1999 Apirila-Iraila - 14. Zenbakia









# AURKIBIDEA




## HAURTZARO INFORMATZEN

DBH-KO LEHEN PROMOZIOA
2 URTEKOAK IKASTOLAN
BATXILERGOKO LEHEN PROMOZIOA
3. HIRUHILABETEKO IRTEERAK
DBH-KOEN ERAKUSKETA
DANTZATIK DANTZARA
DANIARRAK OIARTZON
IPUINETAN BARRENA
DONOSTIA, ARTEETAN EDER
KANPO ZORRA
KARAEZ...
LH-KO GURASO ESKOLA





## HATZAK BETE LAN

HH-KO HAURRAK ETA LITXARKERIAK
3. MAILAKOAK ARROPEKIN JOLASEAN
KAIXO!
INGELERA
1. MAILAKOAK LANDARE ZAINKETAN
1. MAILAKOAK SUKALDARI
2. MAILAKOAK ETA KOMUNIKABIDEAK
ANTZERKIZ BLAI!
OIARTZUNEN ZEHAR IBILALDI BAT
UF! ZENBAT LAN!
TXOTXONGILO SAIOAK
OIARTZUNGO TOPONIMOAK
KALIGRAMAK





## GURASOOK JAKIN DEZAGUN

GURE NERABEAK
DBH BUKATUTAKOAN ZER?
IKASBIDAIAK





## GU ERE KAZETARI

JOXE MARI APAIZAREKIN ELKARRIZKETA
GOTZON GARATEREKIN HIZKETAN





## NAHASTE BORRASTE

GURUTZEGRAMA
HOROSKOPO EROTIKOA
ZENBAT DAKIZU IKASTOLAZ?
KANTARI
KOLOREAK
LETRA ZOPA
ITZALA ETA IRUDIA LOTU!

# HAURTZARO INFORMATZEN




## DBH BUKATU DUTENEI AGURRA

Malkoak xukatuz eta zapiak astinduz, agur esaten dizuegu DBH 4. mailako ikasle kutun horiei. Nahiz eta gure inguruan izerdiak lehortu behar askotan, lana elkarri emanez, hainbeste urtetan erabili duzuen Haurtzaro hau zuen etxea da betirako. Nahi duzuen arte, zoriontsu izan zaitezte bizitzan !!

Despedimos a l@s que finalizan 4º de la ESO. La inmensa matoría terminaron bien los estudios y el graduado de Secundaria. Son muchos años viniendo a Haurtzaro, ell@s y sus padres-madres. Con el deseo de volver a vernos, les decimos iagur!

### DBH 4 A

AIESTARAN ZALAKAIN, Leire; ALBERRO LASA, Ioar; ARGOTE ERKIZIA, Orkatz; ARTETXE ALONSO, Ostadar; BARREIRO ZABALETA Maitane; CAMPOS LOPETEGI Idoia; ESCUDERO GUIJARRO Estibalitz; GARAIAR ZAPIRAIN Joseba M.; HERZE ARBELAITZ Gorka; JAUREGI AIZPURUA Olatz; MAYO GONZALEZ Unai; RETEGI LEKUONA Eñaut; SAGASTUY ARBIDE Yurima; SALABERRIA GONZALEZ Xabier; SANZBERRO ARAKAMA Unai; SETIEN FERNANDEZ Naroa; SUSPERREGI IRAGORRI Naroa; URDALLETA GUERRA Nerea; ZINKUNEGI ZABALEKU Gorka.
Tutorea, MADALEN USABIAGA



### DBH 4B

ALKORTA MUJIKA Amaiur; ARIZMENDI CUELLO Oihana; ASTIASUINZARRA MENDIZABAL Iñaki; ETXABE ASENSIO Jon Ander; GARZIA AIZPURUA Maialen; INTZIARTE AGIRREZABALA Iratz; ISASA INTXAUSPE Aitzol; LASA IRASTORZA Ekaitz; LEKUONA AZPIAZU Leire; LEKUONA CUÑA Unai; LEONET IZA Iker; LOIARTE PIKABEA Andoitz; LOPEZ JIMENO Jon; MITXELENA TXAMIZO Mikel; RETEGI URIA Aiur; REZOLA BAJINETA Susana; ROMERO RODRIGUEZ Rakel; SISTIAGA FERNANDEZ Lohitzune; VALLEJO RETEGI Ugaitz; ZUFIRIA ETXABEGUREN Itoiz.
Tutorea, MARTXEL MARISKAL.





# HAURTZARO INFORMATZEN

## DBH 4C

AGIRREZABALA BEREZIARTUA Leire; AIZPURU LOPEZ Ioritz; ARBELAITZ SARASTI Oinatz; BERAMENDI BRIT Mikel; DEL HIERRO GARCIA Roberto; GALARDI IBARGUREN Itziar; GARAIAR ZAPIRAIN Aintzane; ILLARRAMENDI GARRO Elixabete; LARRUSKAIN AGIRRE Maitane; LAZKANO OIARBIDE Iñigo; LEKUONA CLAVERAS Intza; LIZARAZU SALABERRIA Jone; LIZASO AIZPURUA Iñaki; LOPERENA MONTOYA Ane; PEREZ DE SAN ROMAN URIA Aitzol; PERURENA MARIN Itziar; SOTO MERCADO Oskar; UBEGUN VARONA Jon Alberto; URANGA ETXEBERRIA Alain; URDANPILLETA OTEGI Aritz eta URRETABIZKAIA CUMBRES Erika.
Tutorea, JOXIN AZKUE.



## ONGI ETORRI 2 URTEKO IKASLE BERRIAK

Gure lorategian lore berri batzuk azaldu dira Aste Santuko oporren bueltan. 40 haur, neska-mutil ederrak, hasi dira Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoan "Ikastola Zaharra" izeneko lokaletan. Aspaldian bukatu dira negarrak, algara nagusitu da giroaz; batzuk "piezak" direla erakusten hasi dira, denok gustura heltzen eta gozatuz ikasten. Iraun diezaiela gaur egungo gogo horrek. Ikasleekin batera, badiltugu irakasle berriak ere, Pillare Etxebeste, Koro Izagirre eta Begoña Rezola, hain zuzen ere. Denei bihotzeko ONGI ETORRIA ematen dizuegu, eta gure artean gustura aurki zaitezten ahaleginak egingo ditugu. Aurrera!!




Damos la bienvenida a los nuevos retoños que nos han invadido desde las vacaciones de Semana Santa. 40 nuevos niños y niñas precios@s de 2 años. Queremos que vengan a gusto y que ahora aprendan jugando. Les queda un largo camino. Nuestra bienvenida es también para las tres profesoras: Pillare Etxebeste, Koro Izagirre y Begoña Rezola. A tod@s les deseamos una escolaridad agradable y fecunda.¡¡ BIENVENID@S tod@s de todo corazón!!

# HAURTZARO INFORMATZEN



## A Taldea - *Begoña Rezola*



Itxaso Aldai Landa
Imanol Arbide Bengoetxea
Manex Arruti Salaberria
Olatz Cambronero Gil
Ane Dehesa Urkia
Eneko Iparragirre Lekuona
Ainhoa Iragorri Aizpuru
Ibai Kortabitarte Jauregi
Aitor Otermin Eskudero
Andrea Ozkoidi Fernandez
Lierni Roteta Artazamunoa
Itsaso Uitzi Abarquero
Iker Urrutikoetxea Carrasco
Jon Zarautz Gomez

## B Taldea - *Pillare Etxebeste*



Arturo Almazan Fernandez
Ane Ayesa Perez
Aitor Azpiroz Aranburu
Ander Etxenagusia Irazusta
Mª Luisa Landaberea Etxebeste
Imanol Martin Retegi
Genis Masti Ruiz
Aitor Mitxelena Gil
Jokin Motiño Mendez
Jon Olaiz Gorostidi
Itsaso Perez Loperena
Iñigo Unzueta Retegi
Argiñe Elizondo Gelbentzu

## C Taldea - *Koro Izagirre*

Ander Alberro Ibarburu
Aroia Altuna Ibarguren
Adur Etxebeste Goia
Irati Fernandez Arbelaitz
Eider Iragorri Arbonies
Eluska Leibar Alkorta
Santi Artola Leonet
Unai Lopez Oiartzabal
Adrian Rodriguez Seguin
Uxue Telletxea Loperena
Aitor Zabaleta Etxeberria
Ana Maite Zapirain Galdos
Ander Zinkunegi Cotrino




# HAURTZARO INFORMATZEN

## ZORIONAK!!! 1998/1999 IKASTURTEAN BATXILERGOA AMAITU DUZUEN IKASLEOI

Zuetariko gehienak, hiru urterekin hasi eta oraintxe arte eduki zaituztegu ikasketen garapenean lagunduz. Izerdi, ahalegin eta baita dibertsio majo ere uzten duzue atzean, ikastola honetan. Hemen egin dituzue adiskide eta lagun maitagarriak. Luzaroan manten dezazuela adiskidetasun eder hori. Zuek izan zarete Batxilergoko lehen promozioa, bikaina gainera!!

Etorkizuneko urteetan biziko duzuen ikasle-etapa berrian, Ikastolan bezain ondo- edo hobeto, ahal bada-igaro dezazuela desiratzen dugu. Zorte on!!

Despedimos con lágrimas la primera promoción de Oiartzo Batxilergo Ikastola. Deseamos a tod@s que tengan muy buena suerte en su nueva etapa que comienzan el próximo otoño.

### A Taldea

ADRIAN INTXAUSTI Leire; APAOLAZA LIZARRALDE Andoitz; ARBELAITZ GARCIA Miren ; ARCELUS SOLA Amaia; ARREGI LEGORBURU Maitane; ARRUTI ARCE Leire; AZURMENDI ARANA Nerea; BARRIOLA HUARTE Jon; BERRA GAZTELURRUTIA Maider; BERRA GAZTELURRUTIA Oihana; ETXEBESTE MADARIAGA Iraia; ELIZASU MARTINEZ Olatz; ELUSTONDO IBARGUREN Aitor; ESCUDERO NIETO Maitane; EZEIZA BIKANDI Eneko; GARCIA DONIS Aiora; GARCIA TELLERIA Lierni; GONZALEZ ARBELAITZ Eider; HONTORIA ALTUNA Amaia; MARTIN ETXEBESTE Jon; ODRIOZOLA MANTEROLA Leire; OLIVERI KORTA Maialen; OTAÑO TORRECILLA Madalen; OIARTZABAL FERNANDEZ Haritz; PEÑAGARIKANO IZAGIRRE Maider; ROCA TELLETXEA Josu; SAN ROMAN COMPAÑON Kalima; SAYANS VARELA Miren Karmele; TARRAGONA GOÑI Ander; VAZQUEZ AIZPURU Pantxike; ZAPIRAIN RETEGI Ander.



# HAURTZARO INFORMATZEN




## B Taldea

AIZKORRETA MARTINEZ Aritz; AIZPURUA SUSPERREGI Aintzane; ALBISTUR PULIDO Aloña; ARANBURU ERNETA Maialen; ARRUABARRENA REZOLA Igor; BALENCIAGA ARRESE Irune; ELUSTONDO EXTREME Nerea; FORMOSO ESTENSORO Elena; GURRUTXAGA GOGORZA Oroitz; MENDIBURU ALBISU Intza; OCHOA VICENTE Nerea; SALABERRIA SAIZAR Elixabete; SARASOLA ARCE Ainara; SUKIA ILLERA Oihana: TOLOSA HERRERA Gorka; TORRES BELOKI Eneritz; ZEBERIO BERGARA Aitziber; ZUBILLAGA MURGIONDO Beñat.



## C Taldea

ALAMO AIESTARAN Mikel; ALKORTA OTAMENDI Aitor; ARREGI CABALLERO DE TINEO Oskitz; BENGOETXEA ETXEBESTE Ainize; ERZIBENGOA GAZTELUMENDI Dorleta; FRAILE AZKUE Aitor; GOYA AIZKORRETA Iker; IBARGUREN SOLDEVILLA Aitor; LASA IRASTORZA Ainara; LESAKA OLAZABAL Amaia; MARITXALAR ZELAIA Arkaitz; MATEOS MARTIN Jon; MITXELENA ARTOLA Egoitz; NIETO COBOS Ivan; OSA SIMON Iker; SAGASTUY ARBIDE Oihan; ZAPIRAIN SIERRA Beñat; ZIPITRIA ALDABE Beñat.





# HAURTZARO INFORMATZEN

## 3. HIRUHILABETEKO IRTEERAK

### HAUR HEZKUNTZA

| MAILA | NOIZ | NORA | HELBURUA |
|---|---|---|---|
| HH 1 - 2 - 3 | Ekainean | Guadalupe | Talde handian autonomia eta sozializazioa lantzea. Era berean ondo pasatzea |
| HH 3 | Maiatzak 12 | Aldako baserria | Abere desberdinak ikustea: ostrukak... |
| HH 2 | Maiatzak 12 | Ergoingo negutegietara | Tomate landarearen hazi prozesuaz gehiago ikastea. |
| HH 1 | Ekainean | Koskotene baserria | Baserriko abereak ezagutzea |

### LEHEN HEZKUNTZA

| MAILA | NOIZ | NORA | HELBURUA |
|---|---|---|---|
| 2. | Apirilak 30 | Diario Vasco | Komunikabideak gaiaren lanketa |
| 2. | Maiatza | O.T.B. | Komunikabideak gaiaren lanketa |
| 2. | Maiatza | Postetxea | Komunikabideak gaiaren lanketa |
| 2. | Ekainean | Koskotene baserria | Baserriko abereak ezagutzea |
| 3. | Ekainak 7-8-9 | Zarautzera | Ikasturte bukaerako ibilaldia |
| 4. | Maiatzak 12 | Egiar/Arkale/Gurutze | Antzinako eraikuntzak ezagutzea |
| 4. | Maiatzak 31 | Arizmendi Mintegira | Landaretzaren lanketa |
| 4. | Ekainak 7 | Donostiara | Hiria ezagutzea: museoak, eraikuntzak, diputazioa, Urgull, badia... |
| 4. | Ekainak 14 | Oinati/Arantzazu | Eraikuntzak eta Gipuzkoa barnealdea ezagutzea |
| 5. | Apirila-Maiatza | Txara basora | Ekosistemari buruzko ikerketa lana egitea |
| 5. | Ekainak 14-15-16 | Gasteiz | Euskal Autonomi Erkidegoko hiriburua ezagutzea |
| 6. | Apirilak 23 | Astigarrako sagardo erakusketa ikustera | Inguruneko lanbideekin lotua |
| 6. | Maiatzak 5 | San Markos Zabortegira | Ingurugiro astearekin lotua |
| 6. | Maiatza | Donostiako Igara Auzora | Yogurren produkzioa (lanbidea) ikustea |
| 6. | Ekainak 14-15-16 | Etxarri Larraun | Ekosistemarekin lotua, harremanak lantzea, LHri bukaera ematea... |

# HAURTZARO INFORMATZEN




## DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

| MAILA | NOIZ | NORA | HELBURUA |
|---|---|---|---|
| 1. | Apirilak 26 | Errenteriara | STARD KID pelikula ikustera etika lantzeko |
| 1. | Ekainak 9-10-11 | Espejora | 3 eguneko ibilaldian elkar bizitzen ikastea, ongi pasatzea, gozatzea... |
| 1. - 2. | Apirilak 30 | Donostiara | Eskolarteko bertsolari txapelketa |
| 1. - 2. | Maiatzak 28 | Amasara | Eskolarteko bertsolari txapelketa finala |
| 1. - 2. | Maiatzak 14 | Ikastolan | Lexoti XVII. txapelketa |
| 2. | Maiatzak 13 | Erniora | Espeleologia egitea |
| 2. | Ekainak 9-10-11 | Zuaza | 3 eguneko ibilaldian elkar bizitzen ikastea, ongi pasatzea, gozatzea... |
| 3. | Maiatzak 12-13-14 | Lizarra | 3 eguneko ibilaldian elkar bizitzen ikastea, ongi pasatzea, gozatzea... |
| 4. | Maiatzak 6 | Oiartzungo Arraguara | Udalak bideratzen dituen berme sozialeko programak ezagutzea |
| 4. | Maiatzak 6 | Irunera | Bidasoaldeko berme sozialeko programak ezagutzea |
| 4. | Maiatzak 10-11-12-13-14 | Kataluñara | Ikasbidaia |
| 4. | Ekainak 21 | Arkaxonera | Gozatzea |

## ZATOZTE!!!!!

### NORA?

DBH 1. eta 2. mailakoen artelanen erakusketara.

### NON?

Euskadiko Kutxaren Aretoan.

### NOIZ?

Ekainaren 14tik 20ra.

### ZERGATIK?

Kolorea landu ondoren, ikasle hauek artista haundien lanak "berritu" dituztelako, teknika eta margoketa estilo ezberdinak erabiliz.

*Bikaina izango da erakusketa, bene benetan!!!*



VINCENT VAN GOGH
Campesinos durmiendo la siesta



# HAURTZARO INFORMATZEN

## 72 LAGUN PARTE HARTZEN ARI DIRA EUSKAL DANTZA HERRIKOEN IKASTAROAN

75 lagun inguruk eman zioten hasiera maiatzaren 5ean Haurtzaro Dantza Taldearen eskutik Euskal Dantza Herrikoien ikastaroari. Antolatzaileak oso-oso pozik agertu dira herri-dantzak izeneko ikastaroari emandako erantzunarekin. Ikastaro hau datorren uztailaren 17an Errenterian egiteko den Erromeria Eguna dela eta antolatu da.

75 lagun hauek bost talde desberdinetan banatu dira. Ikastaroa Haurtzaro Ikastolako Jantokian eta Gela Nagusian izango da.

75 personas se dan cita todas las semanas en la Ikastola para aprender los bailes tradicionales vascos (fandango, arin-arin...), para poder participar en la ERROMERIA EGUNA que tendrá lugar el 17 de julio en Errenteria-Orereta.

## IPUINETAN BARRENA JOXE MARI KARRERE-REN ESKUTIK

Ziurrenik aski ezaguna duzue argazkian ageri den ipuin kontalaria. Bai, lehen hiruhilabetean Haurtzaron ikasleak txora-txora eginda utzi zituen hori bera da. Oraingo honetan, martxoan, Oiartzo batxilergoko 2. mailako ikasleekin jardun zuen bere estilo bitxiaz mundu zabaleko ipuinen berri ematen. Ez ziren gutxi izan eragin zituen barre algarak, ez alajaina!

L@s alumn@s de 2° de bachiller de Oiartzo disfrutaron escuchando a Joxe Mari Karrere, conocido contador de cuentos.



# HAURTZARO INFORMATZEN



## DANIAR LAGUN BERRIAK OIARTZON

Joan den apirilaren 26an, Danimarkako institutu bateko hirurogeita hiru ikaslek ekitaldi berezia eskaini zieten Oiartzo Batxilergo ikastolako ikasleei. Daniar neska-mutilek Batxilergo artistikoa buru-tzen den barnetegi batean ikasten dute. Bertan, ohiko arloez gain, bideogintza, antzerkia, musika eta pintura ere lantzen dituzte, eta arlo hauek guztiak uztartzen zituen jaialdia izan zen, hain zuzen ere, Oiartzon aurkeztu zutena.

Gipuzkoara kultura desberdinak elkartrukatzera eta esperientzia berriak bizitzera etorritako daniar hauetako hamahiruk ikastolako ikasleen etxetan igaro dituzte egunak eta haien herrira itzuli aurretik ikuskizun berezia eskaini nahi izan ziguten harrera ona eskertzeko, beren lana erakusteko eta hemengo gainontzeko ikasleekin harremanetan jartzeko. Emanaldia bukatutakoan, Oiartzoko ikasleek San Markos eguna ospa-tzeko beraiek etxean egindako opilak eskaini zizkieten Zamalbideko Añabitarte baserrian. Euskal dantza eta musika ere izan zen giroa alaitzeko eta azkenean, agur moduan, denak batera ibili ziren alde batetik bestera, aurrera eta atzera, jira eta buelta, kalejiran.

Esperientzia polita bezain aberasgarria, beraz, Oiartzoko ikasleek bizitu dutena, alde batetik beste kultura bat ezagutu eta ingelesa praktikatu ahal izan dutelako, baina batez ere lagun berriak egin dituztelako.

L@s alumn@s de la ikastola Oiartzo compartiendo las "opilas" de San Marcos hechas por ellos mismos, con l@s alumn@s daneses que nos visitaron en abril, algunos de los cuales han convivido en las casas de nuestr@s alumn@s. Interesante experiencia en la que además de conocer otra cultura y practicar el inglés, han podido hacer nuevos amigos.






# HAURTZARO INFORMATZEN

## DONOSTIA, ARTEETAN EDER

Apirilaren bukaera aldera, Oiartzo Batxilergo Ikastolako 2 A mailako arte aukera dugunok Donostiara ibilaldia egin genuen. Asteartez, azkeneko orduan dugunez klasea, toporaino hurbildu eta Amararaino joan ginen.

Gernikako Arbolaren etorbideko etxeak aztertzen ihardun genuen hasteko. XIX. mendeko Eklektizismo Historikoak zer utzi zigun eta batez ere, Modernismo estiloko eraikuntzak miatu genituen. Ondoren, norberak eramandako bazkari mokadua.

Bukatutakoan, Artzain Ona Katedral neogotikoa kanpoaldetik aztertu genuen.
Hirugarren helburua San Telmoko euskal pinturaren historia erakusketa bisitatzea zen. Baina bidean Santa Maria Basilika barrokoa (kanpoaldetik; barnetik, eskulturak...) dastatu genuen. Pena San Bizente gotikoa itxita egotea. San Telmon euskal pintura historian zehar ikusten jardun genuen.

Hainbeste estilo ezberdinekin, azkenerako erdi mareaturik bukatu genuen, baina itzultzekotan (bakoitza bere kontura, gerora eta presarik gabe) geratu ginen.





L@s alumn@s de la opción de arte de 2° de bachiller de Oiartzo no tuvieron que viajar muy lejos para contemplar y analizar diferentes estilos de arte. En el mismo Donostia descubrieron los edificios del Eclecticismo Histórico y Modernismo en el paseo del Árbol de Gernika, el estilo neogótico de la Catedral del Buen Pastor y el Barroco de la Basílica de Santa María. No tuvieron ocasión de entrar en San Vicente, pues se encontraba cerrado pero acabaron en el museo de San Telmo, donde vieron una exposición sobre la historia de la pintura vasca. Aunque un poco maread@s, quedaron en que cada un@ volvería por su cuenta.

# HAURTZARO INFORMATZEN



## KANPO ZORRA, BETIKO ZORRA?

Milurteko amaiera honetan munduko herrialde txiroenen garapenerako oztopo larri bihurtu da kanpo zorra. Herrialde horiek, bere baliabide urri gehienak maileguak itzultzeko erabili beharrean aurkitzen dira.

Kanpo zorra eragindako krisiaren larritasunak eta milurte berriaren atariak sinesmen, iritzi eta ideologia desberdinetako pertsonak elkartu ditu helburu batekin: gosea eta txirotasunaren zulotik irten ezin duten mila milioi gizakiren bizitzari irtenbidea bilatzea.

Orain arte proposatu diren irtenbideak hutsean gelditu direla eta CARITAS, CONFER, JUSTICIA Y PAZ eta MANOS UNIDAS - ek kanpaina jarri dute martxan estatuan, aipatutako helburuarekin: 2 000 garren urterako munduko mila milioi pertsona gehiagori kanpo zorraren zama izter gainetik kentzea.

Gipuzkoan, CARITASek koordinaturik talde ugari elkartu dira sentsibilizazio, mobilizazio eta presio politikoan oinarritutako kanpaina hau aurrera eramateko.

***Afrikak lau aldiz gehiago gastatzen du zorraren ordainketan osasunean baino.***

***Urteko 500.000 haur baino gehiago hiltzen dira zorraren ordainketaren ondorioz, osasun zerbitzuetan egindako murrizketak direla eta.***

***Zorraren jatorria hauxe da: 70 eta 80ko hamarkadetan hegoaldeko herrialdeek banku pribatu, estatu eta instituzio multilateralengandik jasotako maileguak (kredituak)***

***Hori Iparraldeko herrialdeak krisian zeudenean gertatu zen. Kapitalak hegoaldea aukeratu zuen kredituaren merkatu berri gisa***

## KARAEZ-HAURTZARO TRUKAKETA BATEN HISTORIA

Ekainaren bukaera honetan Bretainiako 25 ikasle eta 3 irakasleren bisita jaso dugu Haurtzaro Ikastolan. Era berean, Haurtzaroko 23 ikasle eta 2 irakasle hirugarren urtez Karaez herrira joan dira 10 eguneko egonaldia egitera. Hauxe da trukaketa honen kronika:

*96/97 ikasturtean eman genien hasiera Haurtzaro Ikastolan Karaez herrira antolatutako egonaldiei. Ikasturte horretan Haurtzaron frantsesa ikasten zuten 25 ikaslek aukera izan zuten astebeteko egonaldia bertan egiteko eta bide batez ikasturtean zehar ikasitakoa praktikan jartzeko.*

*97/98an errepikatu egin genuen esperientzia, eta berriro beste 25 bat ikasleek parte hartu zuten astebeteko egonaldian.*




*Aurtengo proiektuan nobedade ugari izan ditugu: alde batetik gure ikaslek, 23 guztira, eta 2 irakaslek 10 eguneko egonaldia burutuko dute Karaezeko familien artean ekainaren bukaeran. Oraingoan DBH 2, 3 eta 4. mailako ikasleek hartuko dute parte.*

*Era berean, Bretainiako DIWAN ikastolako bigarren hezkuntzako 25 ikasle etorri zaizkigu eta gure familien artean hartu dute ostatu. Aste beteko egonaldia egiten ari dira une honetan, eta gure artean egotearekin batera Euskal Herria ezagutzeko parada izango dute eta gure ohiturak ezagutzen joango dira.*

*Ikastolako ikasleentzat oso esperientzia aberasgarria izango dela aipa daiteke, alde batetik, hizkuntza aldetik, frantsesez mintzatu ahal izango direlako eta bestetik kultura eta ohitura desberdinak ezagutuko dituztelako.*




# HAURTZARO INFORMATZEN

El curso 96/97 comenzamos con el programa de estancias de una semana en Karaez (Bretaña), pueblo hermanado con Oiartzun. 25 alumn@s de la ESO participaron en aquella ocasión, realizando una estancia de una semana entre las familias que nos acogieron. El siguiente curso se repitió la experiencia y este año tenemos dos novedades: Por una parte 23 alumn@s de 2°, 3° y 4° de la ESO realizarán una estancia de 10 días en las familias de Karaez, para poner en práctica el francés aprendido a lo largo del curso; por otra parte recibimos la visita de 25 alumn@s de Bretaña, de la escuela de secundaria de DIWAN (enseñanza en bretón). Se han alojado entre nuestras familias e irán conociendo nuestra geografía y nuestra cultura.



# HAURTZARO INFORMATZEN




## LH-KO GURASO ESKOLA DAGOENEKO ABIAN DA

Haurrei beren hazkuntzan eta hezkuntzan, hau da, beren bilakaera fisiko eta psikologikoan, laguntzea, guztion ardura da, bai gurasoena, bai Haurtzaro Ikastola osatzen dugun profesionalena ere. Horrela, etorkizunean pertsona autonomoak, kapazak eta konfidakorrak bilaka daitezen.

Horregatik, ikasturte honetan elkarrekin pentsatzeko une eta espazio bat sortu nahi izan dugu, zuen kezka, desio eta beharrei jarraituz, elkarrekin gogoeta egiteko.

Horretarako, Lehen Hezkuntzako Guraso Eskola martxan jarri dugu hirugarren hiruhilabete honetan, aurrekoan HHkoa bezalatsu, eta hona hemen xehetasun guztiak:

· *Guraso Eskolako arduraduna* ***Miren Garbizu*** *da. Bera dugu Haurtzaro Ikastolako psikologoa.*

*1. Lau bat saio aurreikusi ditugu, hilabeteko bat.*

*Saioak ordu eta erdikoak dira. Ordutegiari dagokionez, berriz, arratsaldeko 15:00etatik 16:30etara. Saioak Ikastolan dira.*

*Saioak erabat praktikoak dira eta gure seme-alaben heziketan ditugun gora-beherak bideratzeko oso lagungarriak, hain zuzen ere.*

· *Saioak dohainik dira.*

Bukatzeko, azpimarratu nahi dugu gurasoen parte hartzea oso garrantzitsua izan dela eta datorren ikasturtean jarraitzeko asmotan gabiltzala, hasitako bideari eutsiz.

Ayudar a l@s niñ@s en su crecimiento y evolución, tanto físico como psíquico, ayudarles a convertirse en personas autónomas, capaces y confiadas es tarea de tod@s, tanto de l@s padres-madres, como de l@s profesionales que constituimos Haurtzaro Ikastola.

Por ello, este curso hemos querido crear un espacio donde podamos pensar junt@s en el modo de ayudar a l@s niñ@s en este devenir y donde tratar aquellos temas que son de vuestro interés. Así, en este tercer trimestre se ha consolidado la Escuela de padres-madres de Ed. Primaria. Se han realizado cuatro sesiones prácticas, donde Miren Garbizu, psicóloga de la Ikastola, ha sido la responsable. Subrayar que se han realizado sesiones en euskara y castellano independientemente. Por último, añadiremos que la participación ha sido muy importante.





# HATZAK BETE LAN

## HAUR HEZKUNTZAKOAK LITXARKERIETAN "ADITUAK" IZAN NAHIAN

Joan den hilean, aurreko urteetan bezala inguro-giro astea antolatu zen Haurtzaro Ikastolan.Ingurugiro aste honetan, maiatzaren 3tik 7ra, Haur Hezkuntza zikloko ikasleekin li-txarkerien kontsumoa aztergai izan genuen.

Gaur egun batez ere, haurren elikaduran litxarkeriak hartzen ari diren leku garrantzitsuaz oharturik, eta horrek osasunean duen eragin zuzenaz jabeturik, gai horren inguruan haurrekin erreflexio bat egin nahi izan genuen.

Azterketa horrekin helburu hauek lortu nahi genituen:

**Litxarkeria gehiegi jateak duen arriskuez jabetzea.*

**Litxarkeriak egiteko erabiltzen diren osagaiak ezagutzea eta horiek "gorputzean" izan ditzaketen ondorioez jabetzea.*

**Litxarkerien kontsumoa gutxitzea; moderazioz eta orekaz hartuz gero ez dutela kalterik egiten ohartaraztea.*

Lan hori egiteko prozedura hau jarraitu zen:

1. Girotze lan bat egin genuen geletan, eta horretarako, ikasleei galdera hauek egin genizkien:

*Litxarkeriarik jaten al duzue?
*Zein litxarkeria jaten duzue?
*Zenbat jaten duzue?

2. Litxarkeriak sailakatu egin genituen; litxarkeria bakoitzaren osagaiak aztertu eta osagai horiek gure osasunean duten eraginaz jardun genuen; besteak beste, honako hauek aipatu genituen: hortzetako kariesa,loditasuna,gosea kentzea, odoleko kolesterol kopurua igotzea, tripako mina.

Aztertutako litxarkeria guztietatik "osasungarrienak" izan zitezkeenak zerrendatu genituen, eta horien kontsumorako zenbait aholku ere eman genuen:

*Haurraren elikaduran 4 otordu garrantzitsu daude:



# HATZAK BETE LAN



GOSARIA,BAZKARIA, MERIENDA, eta AFARIA. Saia gaitezen otordu horietan litxarkeriarik ez erabiltzen (batez ere gosarian eta meriendan).
Litxarkerien ordez jateko elikagai osasungarriagoak badauzkagu: FRUTA, ZEREALAK, FRUITU LEHORRAK (in-txaurrak, kakahueteak, almendrak, ...) ARTO FRIJITUA, PALOMITAK , PEPITAK...

*Urtebetetzetako ospakizunak izaten dira askotan litxarkerien kontsumoa bultzatzen dutenak, eta ez beti haurrak berak eskatuta. Ospakizun horietan garrantzitsuena haurra bera egun horretan protagonista sentitzea da, eta hori ez dago litxarkerien baitan.

*"Sin conservantes ni colorantes" publizitatea erabiltzeak , ez du esan nahi produktuak erabat naturalak direnik. Beste mota batzuetako aditiboak izan ditzakete (gelificantes, espesantes, acidulantes,....)

*Noizean behin litxarkeria batek ez du kalterik egiten , gehiegikeria da kalte egin dezakeena. Horretarako komenigarria da haurrak irizpide garbi batzuk eduki-tzea: jai egunetan, astean behin,...

Lan honen emaitza maiatzaren 7an eta 10ean azaldu genuen Ikastolako gela nagusian antolatutako erakusketan.

Bukatzeko, gure eskerrik beroenak Eskarne Irastorza ikastolako gurasoari, nutrizioko aholkularia izanik, laguntza paregabea eskaini baitzigun lana egiterakoan.

***Haur Hezkuntzako irakasleak***



# HATZAK BETE LAN



Del día 3 al 7 de mayo, dentro de la semana dedicada al medio ambiente, l@s alumn@s y profesoras de Educación Infantil reflexionamos y trabajamos sobre el consumo de chucherías.

El proceso de este estudio fue el siguiente:

1. Sondeo entre l@s alumn@s sobre elconsumo de chucherías.
2. Clasificación de las mismas.
3. Análisis de la composición de las chucherías.
4. Reflexión sobre las consecuencias que conlleva el abuso en el consumo de las chucherías en la salud.
5. Establecimiento de pautas que posibiliten un consumo de chucherías más controlado y menos perjudicial.

El resultado de este trabajo quedó reflejado en la exposición que tuvo lugar en el aula principal de la Ikastola los días 7 y 10 de mayo.

Para finalizar queremos agradecer a Eskarne Irastorza, madre de un niño del ciclo y especialista en nutrición, su colaboración en la realización de este trabajo.






# HATZAK BETE LAN





APERITJBUAIZENA IDATEARIGARA

APERITIBUEN IZENA IDAZTEN ARI GARA



AEDA SIBEAMDUIISE ITE

ANDEREÑOAK NIRE AMAREKIN HITZEGITEN



# HATZAK BETE LAN

## LH.3. MAILAKOAK INGURUGIRO ASTEAN

*Arropa zaharrak jaso ditugu.

*Arropa zaharrak aprobetxatuz desfile bat antolatu dugu.

*Ikastolako gela nagusiko erakusketan parte hartu dugu.

### ZER EGIN DAITEKE ARROPA ZAHARREKIN?



*Karitasera bidali.

*Birziklatu.

*Behartsuei eman.

*Aprobetxatu.

*Hautsiak baldin badituzu?
Josi edo trapurako bezala erabili.

* Zaharra bada?

Etxeko lanak egiteko erabili.
Mendira joateko erabili.
Baratzera joateko erabili.
Etxea pintatu behar baduzu erabili.



**Ikusten duzue arropa zaharrak zertarako balio duen.**

*Agur!*

L@s alumn@s de 3° nos dan ideas de cómo utilizar la ropa que ya no usamos.

# HATZAK BETE LAN



## KAIXO!!!

Gu DBH3 C-ko lau ikasle gara: Maitane, Mikel, Asier eta Aloña. Teknologia arloan, eguzki - auto bat egiteko eskatu ziguten, bere izenak dioen bezala, eguzki indarrarekin dabilen auto bat.



Bukatutakoan, proiektu horren memoria egin dugu, eguzki-autoaren marrazkiak, informazioa ... dituelarik.

Kutsadura izan daiteke, gizarte industrializatua-ren, hau da, gure gizartearen arazo nagusietariko bat. Hori ekiditea ez da lan erraza, baina denon laguntzarekin lor dezakegu.

Kutsatzaile nagusietariko bat autoa da. Arazo hau asko bermatu daiteke, gure gizartean bizi diren auto kutsatzaile horiek, eguzki-autoez trukatzen baditugu. Baina ez da lan erraza. Alde batetik, oso garesti direlako, oso handiak eta espazio gutxikoak. Beste aldetik, berriz, petrolioguneen jabeei hori gauzatzea komeni ez zaielako. Nor dago prest ba, gizarte hobea lortzeagatik, bakoitzaren ekonomia gutxituta ikusteko? Azken finean, zein da gure gizartearen oinarria? Ekonomia, noski. Baina badago geroan pentsatzen duen jendea ere. Hauei esker, hasieran amets zena egia bihurtzen ari da orain: eguzki - autoa.

# Ready for a story!

In this issue, HH students are going to tell you "Little Rabbit" story. Are you ready?. It goes like this:

*Once upon a time there was a little rabbit. He lived in the mountains, in a rabbit hole with Mummy Rabbit. One morning, Mummy Rabbit had to go shopping and so she told Little Rabbit not to go out, but ... then guess what happens? Suddenly along comes a bird and says:*

BIRD: *tweet-tweet tweet... KNOCK-KNOCK!*
LITTLE RABBIT: *who's that?*
BIRD: *it's me, the bird.*
L.R: *What do you want, Bird?*
BIRD: *Little Rabbit, come outside and let's play football!*
L.R: *no, I can't . Mummy said " Little Rabbit, don't go out"*
BIRD: *don't be silly, come with me if Mummy's gone.*
L.R: *No, I can't . Mummy said " Little Rabbit, don't go out!!!"*
BIRD: *O. K. Little Rabbit, bye bye*
L.R: *Bye, bye Bird. I'm sorry.*
BIRD: *Tweet-tweet, tweet ...*



MIREIA AMAIA AND IÑIGO

( TO BE CONTINUED)



# HATZAK BETE LAN

## LH.1. MAILAKOAK LANDAREAK ZAINTZEN



# HATZAK BETE LAN



## LH.2. MAILAKOAK ETA KOMUNIKABIDEAK



E.T.B- joan ginen telebista
nola egiten zen ikustera ←

El Diario baskora joan ginen
aber periodikoa nola egiten zen
ikustera →





Romanek ta telebistak
nola funtzionatzen dun
← esan zigun.

Postaetxea bisitatzen →



L@s alumn@s de 2º trabajando distintos medios de comunicación



# HATZAK BETE LAN

## LH.1. MAILAKOAK SUKALDARI

DENOK SUKALDARI



MiLA
ESKER
MiKEL !!



Elikadura gaiari bukaera emateko bazkari bat antolatu genuen lehenengo mailakoak. Menua denon artean erabaki eta gero Mikel Garmendia sukaldariaren laguntza izan genuen prestaketan.

Entre todos los niños de prime curso hemos preparado una comida.

1. maila



# HATZAK BETE LAN

## ANTZERKIZ BLAI!

Hiruhilabete honetan LH.3. mailkoak HHko haurrei irakurtzera joan gara eta ondoren antzerkiak prestatu eta ikustera gonbidatu ditugu. Oso ondo pasa dugu prestatzen eta antzezten!





## OIARTZUNEN ZEHAR IBILALDIA

Azken hiruhilabete honetan LH.4. mailakoek, besteak beste, Oiartzun izan dute langaia eta hori dela eta zenbait ibilaldi egin dituzte herrian barrena. Hona hemen jarraian adin honetako ikasle batek ibilaldi hauetako bat nola laburtu duen.

*Ikastolatik bederatziak aldean atera ginen eta Urkabeko malda igo genuen eta geroago Gurutzera jeitsi ginen. Orduan Pikoketako malda igo genuen; malda igo eta gero Egiarko cromlechak ikustera joan ginen. Gero baso antzeko bide batetik jeitsi ginen Gurutzeraino. Han motxilak utzi eta Arkaleko kobazuloetara sartu ginen maila osoa. Kobazuloetara hamabosnaka sartu ginen eta han barruan harrizko logelak ikusi genituen, 59 eskailera igo eta gero mendiaren beste aldera irten ginen. Han ikusi genuen nondik botatzen zituzten bonbak eta nola babesten ziren gerra zegoenean.*

*Gero Gurutzera jeitsi eta han bazkaldu genuen. Bazkaldu eta gero autobusa etorri zen lau eta erdietan etxera joan ginen.*

**LH. *4. maila***

Durante este último trimestre, l@s alumn@s de 4° curso han realizado varias excursiones en torno a Oiartzun, conociendo así más a fondo nuestro pueblo. Un alumno nos ha relatado qué fue lo que vieron concretamente y por dónde anduvieron en una de estas salidas.



# HATZAK BETE LAN

## UFF, ZENBAT LAN!



Seigarren mailan gaudenok gogor lan egin behar izan dugu azken hiruhilabete honetan. Mota guztietako lanak egin ditugu; gero biztanleria pasiboa garela esateko, gainera ! (biztanleria pasiboa zer den hiruhilabete honetan ikasi dugu). Hona hemen lan hauetako batzuen aipamenak.

Hiruhilabete honen hasiera xamarrean Astigarragara egin genuen txangoa, **SAGARDO ERAKUSKETA** ikustera. Lekua txikitxoa zen, baina bazegoen hamaika gauza ikusi eta ezagutzeko! Hango saski eta tolare, botila eta barrika, ardatz eta enkortxadora... Tresneria hura guztia osatzen zuen elementu bakoitza ezagutuz sagardoa nola egiten den azaldu ziguten: sagarrak bildu, prentsatu, zukua atera... Aukera aproposa izan zen lantzeke geneukan lanbideen gaiari sarrera bat emateko.

Maiatzaren lehenengo astean, berriz, ikastolan ospatutako "ingurugiro astea" zela eta, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleei etxean eduki zitzaketen eta erabiltzen ez zituzten jostailuak eskatu genizkien, batez ere hondatuta zeudenak. Baita zaharkituta gelditutako arropa ere. Ikasleon lana, trebe-trebe, **JOSTAILU** hauek **KONPONTZE**an oinarritu zen: batzuei pila jarri, besteei elektrizitate mailako konponketak egin, pieza berriak asmatu, erabilera berriak eman... A ze injenioso koadrila! Konpondutako jostailu hauek ikastolako txikienen geletara eraman ziren, haiek aprobetxa ditzaten. Gustura aritu ginen, benetan, lan hau burutzen.



# HATZAK BETE LAN





Ingurugiro aste hau aprobetxatuz SAN MARKOSERA IRTENALDIA egin genuen. Bertako fuertea ezagutzeaz gain San Markoseko zabortegiari begira egon ginen, eta "zabor gehiegi sortzen dugu"-la ohartu ginen. Guk ezagututako datuen berri eman, eta ingurugiroari nolabaiteko ekarpen aproposa egin nahian (gure ingurukoak ere ohartaraziz), esaldi hau bera erabili genuen Gela Nagusiko gure erakusketa izendatzeko. Baliagarria suertatu ote zen?

Ikasturtea amaitzear zegoela, ekainaren hasieran hain zuzen ere, euskal idazle bat, **JUAN KRUZ IGERABIDE ELKARRIZKETATU** genuen ikastolan bertan. Bera guregana etorri aurretik bere bi poema liburu irakurri genituen, eta ondoren, berari zuzenduko genizkion galderak eta aipamenak prestatzen hasi ginen. Eguna iritsitakoan gure galdera guztiei erantzun zien, eta modu horretan berari eta bere lanari buruzko datu mordo bat ezagutzeko aukera izan genuen.

Azkenik, 6. mailakook azken hiruhilabete honetan ingurunean landu dugun "Jendetza edo populazioa" gaiarekin lotuz hainbat lanbideri buruzko kontuak ikasi ditugu. Hori dela eta lanbideren bat edo beste bertatik bertara ikusteko parada ere izan dugu.

Guretzat, dena den, oraindik ere lan mundua urruti gelditzen da eta, ondorioz, ikasten jarraitu beharko. Baina hori bai, dagoenekoz "handien" artean, lehen etapa hau bukatzearekin batera "txiki" izateari uztera baikoaz.

Lerro hauen bidez, beraz, agur Lehen Hezkuntzari!

**LH 6. Maila**

Durante el último trimestre de este curso, l@s alumn@s de 6°curso hemos realizado varias actividades: a principios del mes de abril tuvimos la ocasión de visitar en Astigarraga la exposición del material que se usaba antaño en la obtención de la sidra. Más tarde visitamos el fuerte de San Marcos, y desde allí, a su vez, pudimos observar el vertedero de basura (relacionándolo con el tema que estábamos tratando en la ikastola). Durante la semana dedicada al medio ambiente nos llevó cierto tiempo intentar arreglar los juguetes que habían llegado a nuestras manos a través de l@s alumn@s de Educación Infantil y Educación Primaria. En junio entrevistamos al escritor vasco Juan Kruz Igerabide, y por último, en relación con el tema de las profesiones laborales que estábamos tratando en clase, pudimos observar de cerca alguna de ellas.



# HATZAK BETE LAN

## TXOTXONGILO SAIOAK

Gu Ainhoa, Idoia, Haitz eta Eluska gara eta lauron artean txotxongiloa asmatu genuen. Orain esplikatuko dugu nola egin genuen:

Irakasleak panpin batzuk ekarri zizkigun eta guk aukeratu eta izenak jarri genizkien:

- *Otso Benito*
- *Yogi hartza*
- *Amona Mari Carmen*
- *Txiki untxia*

Irakasleak pista bat eman zigun. Pista horretatik abiatuz ideiak asmatu eta paperean idatzi genituen.

Entsaio asko agin genituen eta txikiei eskaintzea pentsatu genuen. Azkenean bost saio egin genituen.



## OIARTZUNGO TOPONIMOAK

Batxilergoko 2. mailako ikasle talde batek euskara arloaren barruan burutu duen lan hau interesgarri izango zaizuelakoan, hona hemen beren ikerketaren ondorio diren zenbait baserri eta leku izenen jatorri eta eraketaren berri:

**OIARTZUN**: Oihan ugari dagoen lekua.
Oi(h)an > oiar + -zu ( ugaritasuna adierazteko atzizkia) + -(g) un(e) (lekua).

**ALBISTUR**: Baserri eta lursailaren izena da. Hitzaren lehen osagaia "Albis / Albi(ni)ci" delakoa, antroponomo latino baten ildotik dator. Bigarren osagaia, aldiz, latineko "turr(em)" (torre)-tik dator.

**ALTZIBAR**: Etxe eta auzo baten izena da. Altza- (aliso) eta -ibar (ibarra) hitzez osatuta dago.

**ARBELAITZ**: Etxe eta lurgintzaren izena. Arbel- (pizarra: ar- (piedras) eta -bel (oscuro) ) eta -aiz (roca) hitzetan bana daiteke hitz hau.

**ARDITURRI**: Belardiaren izena da. "Ardi" eta "iturri"-tik dator. Aspaldiko meatze tokiaren toponimo ezaguna da.

**ARRAGOA**: baserri baten izena. "Fragua" erromanikotik, FR taldea gure hizkuntzan R-ra soiltzen da. Bestalde, "ua" talde bokalikoa "oa" bihurtzen da. Hitzaren esanahia: crisol, cavidad que en la parte inferior de los hornos sirve para fundir el mineral.

# HATZAK BETE LAN



**FAGOAGA**: Izen hau baserri bati dagokio. Fago- latineko "fagum"-etik dator eta pagoa esan nahi du. Beraz, latineko "f" gordetzen da, nahiz eta "um"-en ordez "o" jartzen den.

**GALTZADETA**: Laborelur eta belardia. Galtzada "calzada"-tik dator, eta -eta tokizko atzizkia da, beraz, honakoa esan nahi du: errepideen tokia.

**IEROBI**: Etxea eta lursaila. Izen honetan seguraski zera gertatu zen: igera > iera + obi elkarketa. Igera- (molino) eta -obi (cavidad).

**ITURRIOTZ**: Auzo oiartzuarra. Iturri- (fuente) eta -otz (fría).

**KARRIKA**: Auzo oiartzuarra eta lursaila. Karrika (calle, Gipuzkoako ekialdean bereziki, kale ordez). Auzo honetan kale bakarra dago eta honen inguruan daude eraikita etxe eta baserri gehientsuenak.

**MASBURUGAÑA**: Mas- (mahats) + buru (burua, goiko aldea) + -gaña (goia) atzizkiak sortutako izena.

**TELLEGINETA**: Belardi honen izena hitz hauetatik sortua da: Tellegin- (tejero, teilak egiten dituena ) + -eta tokizko atzizki latinoa.

**UGALDETXO**: Ugaldetxo auzoaren erdialdean, Ugalde izeneko baserri bat dago. Garai batean, baserri honen inguruan eraiki zituzten lehenengo etxeak. Horregatik auzo horri Ugaldetxo izena jarri zioten. Baserriaren izena uholdeetatik dator, errekaren ondoan dagoenez, uholde ugari egoten baitziren bertan.

**URDANITURRI**: Etxe honen izenaren osagaiak hauek dira: Urdan- (urde-tik dator) + iturri. Seguraski antzinan zerikusi berezia izango zuen urde hazkuntzak euskaldunen bizitzan.

**USATEGIETA**: Baserri honetan uso asko ibiliko ziren, Usategietak usategiak egoten diren lekua esan nahi baitu.



# HATZAK BETE LAN

## KALIGRAMAK

Zer dira "Kaligramak" ? Olerkia eta irudia uztartzen dituzten lan bitxiak dira. Adibideren bat ikusi nahi baduzue, hona hemen DBH 3. mailako ikasleek Gaztelaniako klasean egindako batzuk. Bitxiak, ezta?



# HATZAK BETE LAN







# GURASOOK JAKIN DEZAGUN

## GURE NERABEAK!!!

Nerabe "normalak" aldaketak ditu nagusi. Aldaketa fisiologikoak, psikologikoak eta sozialak. Aldaketa hauen eragina eskola-ingurunean, gizarte-ingurunean eta familia-ingurunean batik bat nabarmentzen da.

Etapa honetan, helburu nagusia nortasun berria lortzea da, heldu nortasuna; horretarako haur nortasuna atzean utzi behar du. Nerabea, aldaketa psikologiko hau dela eta, istilutan sartzen da, nerabe alaba amarekin, nerabe mutila aitarekin eta kontzesioak kanpoarekin egingo ditu, artean maite ez duenarekin. Transgresioa familiarekin.

Bukatu zaio hain ezaguna zuen bizitza eta ez du geroaren sumaketarik. Askotan dago nahasmenduan eta bertan galduta. Gainera ez da bakarrik nerabearen nahasmendua, helduarena ere kontuan hartu behar da.

Beste aldetik, nerabea konturatzen da emozionalak diren bere aldaketez eta larritu egiten da abaildura sortuz. Ikus adin honetako errendimendu baxua, esate baterako.

Haurra zeneko gauzak galduz doaz eta menpeko egoeratik heldu egoerarantz doa, erreferentziarik gabe. Askotan esaten da, nerabeak ez duela agintea onartzen eta hori nabaria izan arren, bere beharra helduaren erantzuna ezagutzea da eta kontra jartzea, heldu dela konprobatu eta adierazi nahian.

Nerabeak "soinua" egiten duenean eta batzuetan ozenki, "oraindik behar zaitut" esaten digula ulertu behar dugu. Zeren:

- Nerabeak mugarik ez duenean...
- Bere emozioei eusteko inor ez duenean...
- Inor ez dagoenean berataz arduratzeko...
- Ordutegirik ez dagoenean...
- Inor ez dagoenean bere zain...
- Gurasoen gainbegirada falta denean...
- Askatasun osoa nahi duenean...
- Afektiboki desbinkulatua sentitzen denean...

Elementu inkonesoa sentitzen da, noraezean eta arriskuan. Nerabeak berak bizi du KRAK egin dezakeela eta okerrena da benetan egin dezakeela KRAK.



Nerabeak: **"oraindik behar zaitut".**
Gurasoak: **"interesatzen zatzaizkit, baina emaidazu denbora zure hautsi beharra, konfrontatu beharra ulertzeko, eta nik heldu bezala jasan dezadan".**

*Mª JESUS URANGA*
***DBHko GURASO ESKOLAKO ARDURADUNA***

# GURASOOK JAKIN DEZAGUN



En este trabajo Mª Jesús Uranga, responsable de la escuela de Padres-Madres de la ESO nos habla del adolescente "normal". Nos explica que en este adolescente se van a dar grandes cambios: a nivel fisiológico, psicológico y social. Estos cambios repercutirán en el ámbito escolar, social y familiar.

*En esta etapa el objetivo principal es lograr una nueva personalidad, la personalidad de adulto, dejando atrás al niño. Debido a estos cambios serán muy probables los enfrentamientos.*
*Cuando el adolescente hace mucho "ruido", tenemos que entender que nos está diciendo que tiene mucha falta de nosotros, los adultos. Por eso: cuando al adolescente no se le ponen límites, cuando no hay nadie para contener sus emociones, cuando no hay nadie que se ocupe de él, cuando no tiene horarios, cuando nadie le espera, cuando falta la supervisión de la familia, cuando hay libertad total, cuando está desvinculado afectivamente... puede hacer KRAK.*

*El adolescente nos necesita y nosotros, los adultos, tenemos que interesarnos por su necesidad de romper con la etapa anterior y entenderle y acompañarle en esta nueva etapa.*

## DBH BUKATUTAKOAN ZER?

Orain hilabete batzuk inkesta bat zabaldu genuen ikastolako gurasoen artean TXINPARTeko atal honetan ikusi nahiko lituzketen gaien galdezka. Inkestako galderak beren seme-alabak HH-n, LH-n edota DBH-n zituzten gurasoentzat ziren. Jasotako erantzunen artetik eskaera handiena honako gai honek izan zuen: **DBH bukatutakoan zer?**

Gurasoak gai hori lantzeko eskean ari zitzaizkigula iruditu zaigu eta horren inguruan ikastolatik egiten dena apur bat azaltzea iruditu zaigu komenigarriena. Ea zerbait argitzen dugun.

Goiko izenburua datorren moduak - **DBH bukatutakoan, zer?** galdera itxurapean ageri zen inkestan ere - argitzea, erantzutea, azaltzea, erabakitzea, konpontzea... eskatzen duen esparru baten aurrean jartzen gaitu. Esparru ezezagun, korapilatsu eta (larriena!) neurri on batean etorkizuna nahiz bizitza baldintzatzen duen mundu oso bat gordetzen da galdera honen "ate" atzean.

Galdera honen erantzuna, gainera, ez komeni gurasoek ematea... nahiz eta seme-alaben erantzun-bilaketaren eta erantzunaren beraren alboan egotea bai komeni.

Baina gaztetxo hauek, gure seme-alaba hauek, gai ote halako garrantzia duen erantzuna emateko?

Gauza bat argi dago: gaitasun hori ez da besterik gabe sortzen... trebatu egin behar ongi egiteko. Alferrik eskatuko baitiogu gaztetxoari une honetan erabakia hartzeko, baldin eta orain artean erabakiak geuk hartu badizkiogu.

Honetan ere beste gaitasunetan bezala gertatzen da: oinarri-oinarrizko ahalmenetik abiatuta entrenatuz joan behar dela. Korrika, denok egiten dugu gutxi-asko, baina entrenatzen dena iritsiko da lasterketa garrantzitsu bat itxuraz egitera; erabakiak ere denok hartzen ditugu uneoro, baina horretan taxuz entrenatzen denak asmatuko du galdera garrantzitsuenei erantzun eta irtenbide egokienak ematen.

Hori da gaztetxoon aukera egin behar honetan ikastola jarraitzen ari den filosofia. **DBH bukatutakoan, zer?** galderaren **erantzun objektiboak** une honetarako hezkuntza sistemak eskaintzen dituenak dira eta horien informazioa, egon, paperetan dago; baina **NIK** *DBH bukatutakoan, zer?* galderari



# GURASOOK JAKIN DEZAGUN

nor bakoitzak erantzutea, hori ez da hain erraza: pertsona bere osoan harrapatzen duen galdera da. Bada, horri erantzuten (eta egoki erantzuten) "entrenatzen" dira ikastolatik gure seme-alabak.

Horretarako, bi alor jorratzen dituzte:

1. Norbere burua ezagutu
2. Informazioa bildu.

"Entrenamendu-lan" hori DBHko 3. eta 4. ikasturteetan zehar egiten da. Esan genezake, beraz, geldiro-geldiro lantzen den gaia dela. "Entrenamendua", gainera, **neska-mutilek beraiek** egiten dute **osoki** galdeketa multzo baten jarraibideak betez: erantzunetatik hasi eta horien interpretazioraino.

Lerro hauek eskaintzerakoan buruan genuen asmoa entrenamendu honetan gure gazteek ematen dituzten urratsak zuei ezagutzera ematea izan da.

Ez da une samurra 16-18 urteen bueltan gure gaztetxoek bizi dutena: ez beraientzat, eta ez geuretzat ere. Adin honek berez dakarren zailtasunaren erdian, ziur gure seme-alaben une honetako pausoak ezagutuz errazago joango garela haien ondotik eta, ibilbidean lagun bagara, hobeto lagunduko diegula.

Besterik gabe, goazen aipatu pauso horiek ezagutzera:

### *1. "Zein da nire etorkizuna ikasle bezala?"*

Bera da lehen pausoa. Honen bidez nahi da neska-mutilek era sinple batean ikus dezatela **ikasle aldetik** espero dezaketen etorkizuna.

Horretarako 36 baieztapen dituen galdeketa bati erantzuten diote eta hor proposatzen zaizkien gaien aurrean dituzten jarrerak eta aldarteak azaltzen dituzte.

Ondoren gazteak berak zenbatzen ditu emaitzak eta interpretatu, horretarako ematen zaien gida baten bitartez. Oinarrizko lehen pausoa, beraz, gaztea ikasketen aurrean kokatzeko.

### *2. "Ba al dakit zer gustatzen zaidan?"*

Pauso honen funtsa da gazteek argi izan ditzatela ikasketa eta lanbide mailan dauzkaten **lehentasunak** edo **interesak.**

Ez da erraza adin honetan edozein lanbide zehatzen aurreko interesaz nahiz erakargarritasunaz mintzatzea (komeni ere komeni al da?), baina bai lagungarria izango zaiela lan- eta aukera-alor zabalago batzuk jadanik argituz joatea: DBHren amaieran egin behar duten lehen aukerarekin (ikasketa-motarena, gehienbat) bat etorriko dena, alegia.

Horregatik beren baitan hainbat lanbide dituzten sei lanbide-arlo jorratzen dira:

1. Arlo teknologikoa
2. Arlo zientifikoa
3. Bio-osasungintzaren arloa
4. Gizarte zientzien arloa
5. Arlo humanistikoa
6. Arlo artistikoa

# GURASOOK JAKIN DEZAGUN



### 3. "Zertan moldatzen naiz hobeto?"

Esan ohi da ez direla gauza bera nahi eta ahal izatea. Biak interesgarriak, biak ongi bereiztekoak. Aurrekoan ikusitako gustuen parean, urrats honetan gazteak zein **gaitasunetan nabarmentzen** diren argitu nahi da.

Horretarako erabiltzen den tresna, aurreko pausoetan bezala, galdeketa bat da: bertan neurtzen diren gaitasun ezberdinen bidez gazteak, baldin eta zintzotasunez erantzuten badu, zuzen zehaztu ahal izango du aurrez aukeratutako lanbide-arlo bakoitzerako duen gaitasun-maila.

### *4. "Nola definitzen dut nire nortasuna?"*

Behin une honetara iritsita, pauso honetan nahi da gazteak antzeman ditzala bere **nortasunaren ezaugarri** garrantzitsuenak eta beroriek urrats hauetan lantzen ari garen sei lanbide-arlo (ik. 2. galdera) desberdinetan duten eragina.

Horretarako, nortasunari buruzko galdeketa bati erantzuten diote gaztetxoek. Ez, ordea, orokorki hartuta, baizik eta egin nahi dituzten ikasketetan, ustez, eragin handiena izan dezaketen ezaugarrien inguruan. Gero, esku artean jarriko zaizkion jarraibideen arabera, ikasleak berak egiten du emaitzen balorazioa eta ateratzen ditu bere burua orientatzeko ondorioak.

### *5. "Zein arlotan dut errendimendu hobea?"*

Gazteak orain artean bere baitatik, bere pertsonatik abiatuta jardun du zer-non moldatzen den ondoen ezagutu nahirik. Orain, nolazpait, gai horri berari beste batzuek kanpotik eman dioten juzkua jaso nahi da; hau da: errendimendu hobea edo txarragoa izan duen arloak zeintzuk diren, nota hobeak eta txarragoak non lortu dituen ikusten saiatuko da; merezi baitu hau kontuan hartzea erabakia hartzerakoan.

Horretarako gazteak berak DBHko 3.urtean ateratako noten inguruko ariketa multzo bat burutzen du eta 2. urratsean landu zituen 6 arloetako bakoitzean (ik. han zerrenda) izandako arrakasta zein emaitza txarrak ikus ditzake eta emaitza on zein txar horiei buruzko gogoeta egin. Azpimarra dezagun gogoeta honek berebiziko garrantzia duela gerorako ikasketa batzuk ala besteak aukeratzeko orduan.

** Honaino eman diren pauso guztietan gaztea norbere burua ezagutzen aritu da, hasieran esan bezala. Hurrengo urratsetik aurrera han aipatzen genuen beste alorrean jardungo du: informazio-bilketan, alegia.*

### *6. "Zenbat datu ditut?"*

Une honetan nahi da ikasleak bildu ditzala erabakia hartzeko interesgarriak izango zaizkion datuak eta informazioa: **bere buruari buruzko datuak** eta DBHren bukaeran eskaintzen zaizkion **aukera guztiei buruzko informazioa.**



# GURASOOK JAKIN DEZAGUN

Horretarako, taula bat osatzen du aurreko urratsetako informazioa (interesak, gaitasunak, nortasuna eta errendimendua) begirada batez ikusteko. Puntuaketa hori 2. galderan aipatzen genituen 6 arloekin nahiz batxilergoko modalitate ezberdinekin bat dator. Eta, puntuaketa hori aurrean duela, batxilergo, lanbide heziketa edota beste zenbait aukerari buruzko informazio laburra baina zehatza ematen zaio: zer den eta zertarako balio duen ikasketa modalitate bakoitzak; bakoitzean dauden mota bereziak; ikasten diren jakintzagaiak; sartzeko baldintzak; zer eskatzen duen ikasketa horiek egiteak

### 7. "Eta orain, zer?"

Urrats hau, funtsean, aurreko ataletan egindako azterketaren ondorioz atera diren datuak antolatzea da eta erabaki bat hartzera bideratuz joatea.

Horretarako:

**a) Gazte bakoitzak** koadro batzuen laguntzaz informazioa laburtu eta antolatu egiten du.

**b) Ikaskideen taldean**: Bakoitzak egindako aukerak eta horretarako dituen arrazoiak azaltzen ditu eta, lehenik talde txikian eta osoko taldean, ikaskideen iruzkinez aberasten da.

**c) Familiarekin**: Erabakiaren protagonista gaztea bera bada ere, familia da prozesu honetan guztian alde batera utzi ezin den alderdi bat; horrela, gurasoekin, senide zaharragoekin...azken aldian eginiko ibilbideaz elkarrizketatu eta berri ematera bultzatzen da gaztea.

**d) Tutorearekin edo konfiantzazko irakasleren batekin** elkarrizketa egiten da, honen iritzi eta iradokizunak jasotzeko.

**e) Gogoeta pertsonala:**

- Aurrez aurre ditudan modalitateen artetik zeinetan dut nik aukera gehien?
- Aukera horiek nik nahi ditudanak dira?
- Beste modalitateren bat aukeratuz gero, zer irakasgai gehitu beharko nuke nire aukerako bezala?

* * *

Honela egiten da gure ikastolan izenburukoan ageri zen galderari - **DBH bukatutakoan, zer?** - erantzuteko ahalegina. Hori, oraindik, ikastolak aparteko ageri batean gazte bakoitzari eskura ematen dion orientazio aholku konfidentzial batez osatzen da. Uste dugu hasierako galdera ez dela txantxetakoa eta norberak eman diezaiokeen erantzuna ere ez dela gauerdiko ahuntzaren eztula. Poztuko ginateke zalantza batzuk argitzen eta, batik bat, kezka batzuk arintzen lagundu badugu.

***TXINPARTeko***
***guraso taldea***

# GURASOOK JAKIN DEZAGUN



**¿Al finalizar la ESO qué?** es una pregunta acuciante para nuestros/as jóvenes de ese nivel... y para los padres.

La ikastola, con sus recursos y desde sus posibilidades, quiere prestar su ayuda para que el joven/la joven pueda responder adecuadamente al interrogante.

Los jóvenes mismos a lo largo de ESO-3 y ESO-4 llevan a cabo un entrenamiento a fondo sobre cómo tomar decisiones.

El entrenamiento se efectúa de acuerdo a los siguientes siete pasos, que con ayuda de diversos materiales los realizan e interpretan en su totalidad los mismos jóvenes... con el asesoramiento del tutor/tutora:

1. ¿Qué futuro tengo como estudiante?
2. ¿Tengo claro lo que me gusta?
3. ¿Qué se me da mejor?
4. ¿Cómo defino mi personalidad?
5. ¿En qué áreas rindo más?
6. ¿Con qué datos cuento?
7. ¿Y ahora, qué?

## IKASBIDAIAK

### HH 3: LARRAUL





### LH 1. MAILA: BEIZAMA







# GURASOOK JAKIN DEZAGUN

## LH 2. MAILA: LESAKA





## LH 3. MAILA: ZARAUTZ





## LH 5. MAILA: GASTEIZ



## LH 6. MAILA: AROTZ-ENEA



# GURASOOK JAKIN DEZAGUN



## DBH 1. MAILA: ESPEJO



## DBH 2.MAILA: ZUAZA





## DBH 3.MAILA: LIZARRA



## DBH 4.MAILA: KATALUINA









# JOXE MARI BETI BEZAIN ATSEGIN

Gure herrian hamahiru urtez apaiz izandako Joxe Mari Garmendia Ekuadorren izan dugu hiru urtetan zehar, hangoei laguntzen. Aurten hiru hilabete eduki ditu atseden hartu ahal izateko eta Ekuadorrera itzuli baino lehen, berarekin hitz egiteko aukera izan genuen. Hemen doakizue lortutako elkarrizketa atsegina:

**- Non ibili zara hiru urte hauetan zehar?**
*Ekuadorreko Santa Rosa bailaran. 80 000 biztanle ditu eta 38 auzotan banatuta dago. Pazifiko ozeanoaren kostan. Laurogeita hamabostean joan nintzen, baina bertan emandako urteak ez dira nahikoak izan. Lehenengo urtea hango jendea, egoera, ezagutzen igaro nuen eta beste biak bertakoei laguntzen. Orain berriro itzultzeko asmotan naiz, utzitako guztiarekin jarraitzeko.*

**- Nola igaro dituzu hiru urte horiek?**
*Nahiz eta osasuntsu egon, momentu oso luzeak igaro genituen "El Niño" zela eta. Santa Rosa laua denez, bailara guztia putzu bihurtu zen. Gero beroarekin hau usteldu eta moskitoak... ugaritu ziren. Bostna sei hilabete oso luzeak egin zitzaizkidan eta hori gutxi balitz, istripu lazgarri bat ere izan nuen.*

**- Zer egiten duzu han egun arrunt batean?**
*Ekuadorren eguzkia seietan ateratzen da eta seietan gorde. Ni seiak eta erdietan jaikitzen naiz eta berehala hasten zaigu prozesioa gure etxean. Hau da, hango jendea egunero etortzen da diru eske jana lortzeko, edo familiako bat minez dagoela esanez... Baina zuzenean eskatu beharrean lehendabizi hizketaldi luzeak izatea gustatzen zaie. Gero, apaiza naizenez, mezak ematen ditut, astean bitan ospitalean eta asteburuan herriko parrokian. Auzo guztietara hilean behin iristea ere kosta egiten zaigu. Baina, hala ere, auzo guztietan badaude Oinarrizko Kristau Elkarteak. Bertan, katekistak daude eta astean behin biltzen dira jendearekin otoitz egiteko eta auzoko arazoez hitz egiteko. Bailara honetan bi parrokia ditugu, batean bertako apaiz bat eta bestean bi euskaldun gaude.*

*Bestetik, martxan dugu granja proiektu bat ere. Donostiar batek duela bi urte hasi zuen eta orain guk*



*hartu dugu erreleboa. Oiartzunen bildutako diruak han sartu ditugu. Orain hiru familia daude bertan bizitzen eta zazpi familiarentzat handitu nahi dugu. Lau bat txerri ditugu eta hamabi jartzeko asmoa daukagu; ehun oilorentzat oilategia egin dugu,lau behi esnetarako ditugu.Orain dirua biltzen ari gara traktore bat erosteko. Gainera, granja hau eskola bihurtu nahi dugu, hango jendeari lurrak lantzen... irakasteko. Honekin batera, orain dela gutxi beste proiektu bat egin genuen: lur azpian ur ugari dagoenez, hainbat tokitan lortutako diruarekin putzu bat eraiki dugu. Okindegi bat egiteko asmoa ere badugu. Bertan lau emakume jarri nahi ditugu lanean, hau da, lau familiak edukiko dute lana. Aroztegi bat ere jarri nahi dugu baina arazo bat dugu, dirurik ez dugula.*

**- Nolakoa da hango jendea eta zein egoeratan aurkitzen dira?**
*Ekuadorko biztanleen %80 pobrea da, eta hauen erdia miseria gorrian bizi da, ez dute etxe bizitzarik eta eguneroko janaria lortzeko ere larri ibiltzen dira. Ekuador lur aberatsa da baina dena 15 familiaren eskutan dago eta lortutako produktua herritarrentzat utzi beharrean dena esportatu egiten dute.*

**- Zein da hango biztanleen bizi itxaropena?**
*Hango biztanleria oso gaztea da: % 50 hogeita bost urtetik beherakoa eta % 20 berriz, zerotik hamabost urte bitartekoa. Hirurogeita hamar urteko bizi iraupena dute, elikaduragatik...*

**- Zer jaten da han?**
*Gehien bat arroza txuria jaten da, batzuek platano*

# GU ERE KAZETARI



*frijituarekin jaten dute. Arroza, artoa eta banana dira han jaten diren hiru produktuak. Txerria ere asko jaten den animalia da. Horretaz aparte gauza gutxi.*

**-Ba al daude eskolak?**
*Bai, herrian bat dago baina oso fundamentu gutxikoa, irakaslea nahi duenean agertzen da... Badago beste eskola pribatu bat, monjena, baina garestia da.*

**-Noiz hasten dira eskolan eta ze bide jarraitzen dute?**
*Eskola maiatzetik abendura arte dute, gero euriteekin zaila baitute eskolara iristea.*
*Sei urtetik hamabi urtera arte primarian daude eta % 60ak bakarrik bukatzen du; ondoren hamabi urtetik aurrera, sekundarian haietatik % 80 daude eta hauen erdiak bukatzen du. Ume askok lan arriskutsuak egiten dituzte eskolara joan beharrean. Gainera, eskolara joan arren, zortzi urtetik aurrera umeak etxerako dirua lortzen lagundu behar du. Gero, unibertsitatera joaten direnak oso gutxi dira eta gainera, bukatu ondoren ez dute lanik aurkitzen. Eta aurkitzen dutenak kanpora joaten dira lanera eta ez dira gehiago itzultzen.*

**-Nolako harremana izaten da familiatan?**
*Familian ezagunena ama da. Hango matxismoa izugarria da, gizonak ez du familia harremanik, askotan etxetik kanpo bizi da.*

*Bestalde, hango jendea oso solidarioa da. Norbait gaixotzen denean soka bat jartzen dute bidean eta pasatzen diren kotxeei dirua eskatzen diete gaixoei laguntzeko. Beste batzuetan, berriz, eltze handi bat prestatzen dute arroza eta oilaskoarekin, saldu eta gaixoentzat dirua ateratzeko.*

**-Ospitaletako egoera nolakoa da?**
*Oso txarra, bakoitzak bere maindireak eta sendagaiak eraman behar ditu.*

**-Kontatuko al zeniguke anekdotaren bat?**
*Ba, hango jendea pobrea baina oso irekia eta atsegina da. Hemen beldurtu egiten gara ezezagunekin. Behin hemengo hiri batean aszensorean gizon batek bakarrik igotzeko esan zidan, ez dakit, bizarrarengatik edo.*

Elkarrizketa interesgarri honen ondoren, esandakoak hobeto ulertzeko diapositiba emanaldi bat ere eskaini zigun Joxe Marik. Guztiarekin asko ikasi genuela uste dugu eta zuei ere aberasgarria izango zaizuela espero dugu.

**DBH 4. MAILA**

Éstas son unas de las ideas que más nos impresionaron en la entrevista que mantuvimos con Joxe Mari Garmendia sobre sus tres largos años en Ecuador:

- El 80% de la población de Ecuador es pobre y la mitad de éstos vive en la miseria, no tienen ni casa ni comida... Quince familias son dueñas de todo Ecuador.

- A diario me viene gente pidiendo dinero para poder comer.

- Tienen un bajo nivel de escolarización: la escuela del pueblo no tiene fundamento y la de las monjas no la pueden pagar todos.

- El dinero recogido en Oiartzun lo hemos metido en una granja que queremos convertir en escuela para enseñarles a vivir de la tierra. Ya hay tres familias viviendo allí pero queremos ampliarlo.

- Los menores hacen trabajos peligrosos para poder llevar dinero a casa. Incluso los que van a la escuela empiezan a trabajar con ocho años.

- Los hospitales tienen pocos servicios, cada enfermo debe llevar sus sábanas y medicinas.

- La gente es muy solidaria. Cuando alguien enferma hacen parar los coches colocando una cuerda como peage.

# GU ERE KAZETARI



## GOTZON GARATEREKIN ELKARRIZKETAN

Martxoaren 22an izan genuen Gotzon Garate idazle euskaldunaren bisita. Oiartzungo Kultur Etxean elkartu ginen, berarekin hizketaldi bat edukitzeko asmotan. Bertan, ordu eta erdi hitz egiten igaro ondoren gure galderei honela erantzun zien.

**Zure bizitzaz emango al dizkiguzu datu batzuk? Nola igarotzen duzu eguna, hilabetea, urtea?**

*Urtean zehar, hau da, ikastolako denboraldian, Deustuko Unibertsitatean irakasle aritzen naiz, Euskal Filologiako klaseetan; ni izan nintzen karrera hau sortu zuenetako bat.*

*Hau alde batera utziz, nire bizitzako unerik interesgarrienak uda eta negu partean igarotzen ditut, zeren urtaro hauetan lurralde mordoetara bidaiatzen baitut: Moskura, Indiara, Estatu Batuetara... eta baita Euskal Herrira ere. Atzerritik bueltatzean, baserri desberdinetara joaten naiz nire euskara hobetzeko asmotan, bertako aitona-amonekin.*

**Nola piztu zitzaizun idazteko zaletasuna?**

*Nire gazte denboran gerra ondorena bizitu nuen eta baita momentu gogorrak pasatu ere. Garai haietan euskaraz hitz egitea debekatuta zegoen eta gainera, ikasketak erdaraz egiten ziren. Nik neuk 19 urte bete arte ez nuen aukerarik izan euskaraz ikasketak egiteko. Hauek betetzean Deustuko Unibertsitatean hasi nintzen euskaraz ikasten.*

*Txikitatik beti izan dut irakurtzeko afizioa. Behin etxean, neuk idatzitako ipuin eta nobela batzuk aurkitu nituen, lehiaketetara bidaltzea erabaki nuen eta lehen saria eskuratu nuen. Honela ba, txapelketa irabazteak idaztera bultzatu ninduen.*

**Zergatik sortu zitzaizun idazteko gogo hori?**

*Irakurtzea beti izan dut gustuko, baina idazteko zaletasun hori berezko gauza da. Idazteko gogo hori anaia zaharrenak txikitan kontatzen zizkidan ipuinetatik dator, gozatu egiten bainuen; hori gogoratuz idazteari eman nion.*

**Zein da zure ibilbidea zure idazlanetan? Nobela bat idazten, zer garapen ematen duzu?**

*Niretzat informazio iturri egokia oso garrantzitsua da. Normalean, edota beti, nik bizitutako edo ezagututako garaietan oinarritzen naiz idazlanak burutzerakoan, hau da, istorio errealak kontatzen ditut, ez asmatutakoak.*

*Idazlanaren izenburua azkena jartzen dut, zeren eta istorio batek buelta asko eman baititzake, hau da, hasierako pentsamenduak askotan bukaerako emaitzarekin ez duelako zer ikusi handirik izaten.*

**Zer egiten duzu aurrera jarraitu ezin duzunean?**

*Aipatu bezala, baditut momentu batzuk ezer ere ez zaidana bururatzen. Horrelakoetan lotan edo beste gauzatan nagoenean bururatzen zaizkit ideia berriak.*

**Zein da idazteko zure esparrua?**

*Lehen aipatu bezala, nobela errealistaren esparrua jorratzen dut. Liburuaren azken orrazketak, une horretan aurkitzen naizen baserrian burutzen ditut. Sukaldean, bero dagoelako eta bertan aitona-amonak egoten direlako. Beraiek laguntzen didate hizkuntzaren aldetik orrazketak egiten.*

**Zein da zuretzat idazteko momenturik egokiena?**

*Arratsalde partea izan ohi dut gustukoen, goizean tentsioa dela eta, edota lotan nagoelako, ez zait batere gustatzen.Bazkaldu ondoren, aldiz, lokuluxka txiki baten ostean eta gaua bitarte idazten aritzen naiz gustukoen.*

**Zer materialez baliatzen zara idazteko?**

*Nik leku desberdinetan idazten dudanez, hau da, baserri desberdinetan, ordenagailu portatila erabiltzen dut, praktikoa delako eta erabiltzen erraza.*

**Aukeratzen dituzun pertsonaiak zer dira gehiago, emakumezkoak ala gizonezkoak?**

*Gehien bat aukeratzen ditudan pertsonaiak gizonezkoak dira. Ni gizonezkoa izanik, hobeto ezagutzen ditut. Hala eta guztiz ere, nesken aurka ez dut deus ere.*

# GU ERE KAZETARI



**Nola aukeratzen duzu gaia liburua idazteko?**
*Egunero hilketak eta horrelakoak agertzen diren bi aldizkari irakurtzen ditut, hau da, gauza errealak. Lehen aipatu bezala, gertatutako edota bizitutako istorioetatik.*

**Gauza bitxiren bat konta iezaguzu.**
*Behin baserri batean nengoela, hauxe gertatu zen: bi ahizpa ziren, zaharrenak 11 urte zituen eta besteak 9 urte. Ahizpa zaharrena etxekoek ez zuten maite gaitz bat zuelako eta gainera, zerbait gertatzen zenean errudun jotzen zuten. Honela ba, honek egun batean gazteena hil zuen.*



L@s alumn@s de 4° de la ESO en la entrevista al conocido escritor vasco Gotzon Garate.

Hauxe izan genuen Gotzon Garate idazlearekin izandako elkarrizketaren emaitza. Ikasleak zeinen gustura egon ziren ikusteko, hona hemen horietako batzuek saioari buruz idatzitakoak:

*"Oso atsegina izan zen elkarrizketa. Idazlea ere hala azaldu zen. Oso interesgarria iruditu zitzaidan gizon honen bizitza, asko bidaiatzen duelako, ohitura eta kultura asko ezagutzen dituelako, baina batez ere, bere herria ez duelako albo batera uzten, aitzitik, hau ondo ezagutzen saiatzen delako eta bere ama hizkuntzaren alde ahal duen guztia egiten duelako. Pertsona honetaz gustatu zaidan beste gauza bat, jendeari laguntzeko bere nolabaiteko zaletasuna izan da; hau dela eta, esperientzia oso gogorrak izan ditu eta hau garrantzitsua iruditzen zait norberak bere bizitzari aurrera egiten ikasten baitu modu honetan.Laburbilduz, oso gizon interesgarria iruditu zait honako hau, asko bizi izan duen horietakoa."*

*"Liburutegira sartu nintzenean, ez zitzaidan iruditu tipo horrek halako liburuak idatziko zituenik. Eseri ginenean eta hitz egiten hasi zenean tipo diferente bat ematen zuen: martxosoagoa, biziagoa... edadetu bat izateko. Gainera, espresatzeko duen erraztasunak eta gazteekiko laguntasunak txundituta utzi ninduten. Gainera, istorio eta esamolde politak kontatzen zituen. Liburutegitik gustura irten nintzen, nahiz eta beste pentsamendu batekin joan. Oso ongi egon zen elkarrizketa eta Gotzonek erakutsi zuen gazteekin moldatzen badakiela."*

Ikusi bezala, halakoa izan zen Gotzonek ikasleengan sortu zuen lilura, ezen bakoitzak idatzitako bere iritzia bidali zion eta oraingoan ere, guztien harridura eta miresmenerako, Gotzonek guzti-guztiei banan-banan erantzun zien! Bejondeizula Gotzon, eta segi horrela!

**DBH 4. MAILA**



# NAHASTE BORRASTE

## GURUTZEGRAMA

1.- **Agurtzeko erabiltzen den hitza**: oxiak
2.- **Animalia luzea, berdea, narrastia eta kozkalaria**: aolirdokok
3.- **Kolore guztietako tintadun gauza, bere sinonimoa boligrafoa delarik**: atoxa
4.- **Ikastolako gauzarik dibertigarriena 30´ingurukoa**: aiaragsaloj
5.- **Donostiako futbol taldea**: alaerrE
6.- **Ikastolako gairik astunena eta zenbakiz betea**: akitametam



## HOROSKOPO EROTIKOA

**Aries**: Adarrak badituzu eta gehiago jarriko dizkizu.
*Gure aholkua*: Berarekin hitz egin.

**Tauro**: Badakit ez duzula neska edo mutil lagunik, baina lasai; zuk uste baino gertuago dago.
*Gure aholkua*: Funtzioa lehenengo egunean egiteak oso egoera txarrak ekar ditzake.

**Geminis**: Bikoterik baldin baduzu, ilargipean ahaztu ahal izango duzun gaua igaroko duzu.
*Gure aholkua*: Preserbatiboa erabili. Bikoterik ez baldin baduzu, lasai zeren hauetako egun batean rollo bat izango duzu eta. Pasa gabe!

**Cancer**: Aukerak badituzu, baina ez dituzu aprobetxatzen ondokoak zer esango duen beldur zarelako.
*Gure aholkua*: Berarekin hitz egin.

**Leo**: Zure bikotearekin saio apasionatu bat igaroko duzu. Baina ez bakarra, gero eta gehiago izango dituzu.
*Gure aholkua*: Ez hunkitu zeren pasio hori denborarekin itzaltzen joango da. Ez baduzu bikoterik, masturbatzen hasi zaitez, zeren...

# NAHASTE BORRASTE



**Birgo**: Badakigu funtzioa egiteko gogoa duzula, baina lasai iritsiko da eta.
*Gure aholkua*: Ez amargatu!

**Libra**: Espabilatzen hasten ez bazara, zure urte guztiak monjen etxe batean pasa beharko dituzu. Ez esan denei ezetz eta norbaitekin probatu ya!
*Gure aholkua*: Gelakide bat zure atzetik dabil. Adi egon! Oso gertu dago eta.

**Eskorpio**: Erromantikoagoa izan behar duzu berarekin. Adibidez: Afari bat ilargiari begira, kandela batzuekin eta ondoren hondartzara, izarrak begiratzera, uretan bainatzera arroparekin edo gabe, ondoren...
*Gure aholkua*: Toaila eta kondoi bat eraman ezazu.

**Sagitario**: Oraingoz ez duzu ezertxo ere izango. Hain lotsatia izango ez bazina, agian... Festetan zerbait gerta daiteke.
*Gure aholkua*: Ez izan txotxola! Eta festetan aprobetxatu!

**Kaprikornio**: Batekin ez duzu nahikoa izango eta bi pertsonarekin batera nahiko duzu egon gelan bakarrik.
*Gure aholkua*: Ez egin txorakeriarik! Gero damutu egingo baitzara.

**Akuario**: Belada erromantiko bat zure bikotearekin. Hondartzan etzanda, bata bestearen gainean.
*Gure aholkua*: Ez emozionatu! Bikoterik ez baldin baduzu, mal rollo.

**Pistis**: Zure mutil/neska lagunarekin momentu oso onak izango dituzu. Baina adi egon noren etxera joaten zareten; bestela momentu oso txarrak pasako dituzu, (batez ere zure amarekin).
*Gure aholkua*: Erabili beti kondoia eta bere etxera joan zaitez, ez zurera.

## KANTARI

**Joko honetan egin behar dena, zera da: hor behean zenbatuta dauden kantak abesten dituzten taldeen izenak asmatu. Besterik gabe hasi irakurtzen eta asmatu.**

1.- En su tumba hay,
latas de cerveza,
Txus no bebas tanto
¡No pierdas la cabeza!

2. Otra vez llega la Navidad
la gente emana felicidad,
todos sonríen sin parar
a quien pretenden engañar
todo sigue igual...

3.- I won´t take it?
I won´t take it?
I won´t take it?
I won´t take it?

*a.- Negu gorriak*
*b.- Molotov*
*c.- La polla records*
*d.- Sepultura*
*e.- Ska-p*
*f.- S.A.*
*g.- Txirri, Mirri eta Txiribiton*

4.- Uh, oh! Sindikatu
Stop gerra, borrokatu,
Batzar gaitezen,
Sindikatua!!

5.- Saco un papelillo ,
me preparo un cigarrillo,
y una china para el canuto de jachis,
jachis !

6.- Pintxo, Pintxo,
gure txakurra da ta
Pintxo, Pintxo,
bere izena da.
Txuri beltza da ta
ez du koxka egiten
begi bat ixten du
jolastu nahi badu.

7.- Porque no nacimos donde no hay de comer,
no hay por qué preocuparse cómo lo vamos a
hacer y si nos pintan como a unos huevones
¡VIVA MÉJICO CABRONES!



# NAHASTE BORRASTE

## ZENBAT DAKIZU IKASTOLAZ?

1-. Zein da ikastolako zuzendaria?

*a -. Joxe Ostolaza.*

*b -. Lupe Mendigutxia.*

*c -. Jaione Ugaldebere.*

2 -. Nor da fotokopiak ateratzeaz, ikastola pintatzeaz eta berogailuak piztutzeaz arduratzen dena?

*a -. Joxe Remijio Ostolaza.*

*b -. Iñaki Lertxundi.*

*c -. Agustin Vital.*

3 -. Non kokatzen dira bi urteko haurrak?

*a -. Ikastola zaharrean.*

*b -. BBB-ko geletan.*

*c -. hiru urtekoekin batera.*

4 -. Zenbat ikasle daude ikastolan?

*a -. 900 - 1000 inguru.*

*b -. 600 - 700 inguru.*

*c -. 800 - 900 inguru.*

5 -. Noiz inauguratu zen ikastolako jantoki berria?

*a -. 1997 an.*

*b -. 1998 an.*

*c -. 1999an.*

6 -. Zenbat urte arte egon behar dute ikasleek ikastolan, errepikatzen ez bada?

*a -. 15 urte arte.*

*b -. 16 urte arte.*

*c -. 17 urte arte.*

**Erantzunak:**

1 - c; 2 - a; 3 - a; 4 - c; 5 - b; 6 - b.

**Ondorioak:**

**6 - 5** erantzun asmatu badituzu, Haurtzaro ikastolaz jakin beharrekoa badakizu.

**4 - 3** erantzun asmatu badituzu, hasi espabilatzen eta Haurtzarori buruzko informazioa bilatzen.

**2 -1- 0** erantzun asmatu badituzu, ze lekutan ikasten duzu? Esna zaitez, ikastolari buruzko informazioa lor ezazu.

# NAHASTE BORRASTE



## KOLOREAK




**KAMIOIA ZENBAKIAK ESATEN DUTEN KOLOREEKIN MARGOTU:**

1. URDINA
2. MARROIA
3. BELTZA
4. BERDEA
5. GORRIA
6. MOREA

## LETRA ZOPA

**AURKITU 8 JOKALARI ETA EKIPO DESBERDINEN IZENAK**

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| E | M | K | L | M | A | L | C | O | K | G | Z | M |
| R | E | N | A | L | D | O | M | D | I | X | N | A |
| R | O | G | E | L | I | O | P | E | D | R | U | N |
| E | P | N | E | R | O | L | Z | P | C | R | P | O |
| A | N | K | A | R | A | N | Z | A | B | A | L | L |
| L | O | G | I | L | S | T | U | U | M | C | A | C |
| A | Z | R | A | L | D | C | F | L | Z | F | L | Z |
| Z | L | O | T | T | A | O | S | A | S | U | N | A |
| A | T | H | L | E | T | I | C | Z | K | L | O | G |
| A | R | C | A | O | S | R | E | R | R | E | C | P |



## ITZALA IRUDIAREKIN LOTU

HAURTZARO
ikastola

kutxa fundazioa
fundación